

SAMEDI 6 ET DIMANCHE 7 OCTOBRE - BAYONNE
URRIAREN 6 ETA 7ko ASTEBURUAN - BAIONA

Alternatiba 2018

LA GRANDE FÊTE DES ALTERNATIVES POUR CHANGER LE SYSTÈME, PAS LE CLIMAT !

ALTERNATIBEN BESTA HANDIA SISTEMA ALDATZEKO, EZ KLIMA

PROGRAMME • PROGRAMA

Prix libre
Nahitahar duzun
Prezioa



ANIMATIONS - CONFÉRENCES - ATELIERS - CONCERTS - EXPOSITIONS - TABLES RONDES
ESPACE ENFANTS - REPAS POPULAIRES - ARRIVÉE DU TOUR ALTERNATIBA - MARCHÉ PAYSAN

HITZALDIAK - ERAKUSTALDIAK - KONTZERTUAK - ERAKUSKETAK - LABORARIEN MERKATUA
HAURREN XOKOA - BAZKARI HERRIKOIAK - ALTERNATIBA ITZULIAREN HELTzea



entrée
gratuite

www.bizimugi.eu/alternatiba

#Alternatiba2018

sartzea
urririk

bizi!

Alternatiben herrixka euskaraz bizi!



"Alternatibako ehunka laguntzaile AhoBizi eta Belarriprest izanen dituzu, errazki ezagutuko dituzu, txapa papoan jantzirik ukanen dutelako. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra biziko dugun EUSKARALDIA deitu ekimenean parte hartzeko bi aukerak ditugu AhoBizi eta Belarriprest profilak. Baina, hamaika egun hauek aitzin, euskararen erabilpena aktibatzeke gomita luzatzen dizugu, Alternatibaren kari ere. AhoBiziak lehen hitza euskaraz egiten dizu, jarraitu gustuan euskaraz! Belarriprestak euskaraz egiteko gomita luzatzen dizu, egiozu euskaraz! Non-nahi, Alternatiban, EUSKARALDIAn eta edozein momentutan, hots ahal den aldi guziz, balia eta goza dezagun euskara!"

URRIAREN 6A, LARUNBATA

MINTZALDIAK • FAKULTATEKO 25. IKASGELAN

11:00 - 12:30

ITSASUKO LABORARI BATEN GOGOETAK 2008-2017

Itsasuko laborari baten gogoetak 2008-2017 liburuaren aurkezpena Mikel Hiribarren eta Gilles Rivièreekin. Kronika honek, laborantza intentsiboari iharduki dien Itsasuko laborari talde baten esperientzia erakusten du. ELBko eta Confédération Paysannen Estatu mailako bulegoko kide den Mikel Hiribarrenek biharko laborantzaren erronkei buruzko ikuspegia, tokiko bai eta mundu mailakoa ere du.

Baionako Mediatekarekin lankidetzan



14:30 - 16:00

EKOFEMINISMOA, JENDARTE JASANGARRIA ERAIKITZEKO ESTRATEGIA?

Ekofeminismoa, ekonomia feminista, burujabetza feminista.

Aiala Elorrieta, ekonomialaria, ekintzaile eko-feminista; Amaia Zufia, historialaria, Bilgune Feminista.



HITZORDU NAGUSIAK • PAUL BERT PLAZAN

15:00

ANIMAZIOAK

Ostatua, taloak, joaldunak, batukada, hip hop, Alternatiba Itzuliaren jarraipena pantaila erraldoian...

17:00

ALTERNATIBA ITZULIAREN HELTzea

17:15

MITIN ALAITUA SISTEMA ALDA DEZAGUN ETA EZ KLIMA

"Ezinezkoa saiatu, ezin pentsatuzkoa saihesteko"

18:30

KONTZERTUA URRIRIK

OLD SCHOOL FUNKY FAMILY
HK ET L'EMPIRE DE PAPIER
GLAUKOMA



URRIAREN 7A, IGANDEA

MINTZALDIAK • FAKULTATEKO 127. IKASGELAN LEHEN ESTAIAN

10:30 - 11:45

EUSKAL HERRIA BURUJABE: GURE BIZI-BALDINTZAK BERRESKURATUZ

Zer da lurralde baten egiazko burujabetza elikagai, energia, ekonomia eta sozial arloetan? Trantsizio sozial-ekologikoak, behartuak edo nahitara antolatuak, herritar guzien bizian eta jendartearen arlo guzietan sekulako ondorioak ukanen ditu. Bizia kudeaketa bio-eskualdeen eskalan egiten da, burujabeago, jasangarriago eta solidarioagoak izanen diren komunitateak sortzea indartuz.

Joseba Azkarraga, soziologoa, Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea, Trantsizio eko-sozialean aditua; **Nikolas Goñi**, Bizi!, Euskal Herria Burujabe Lan Taldea; **Amaia Muñoa**, ELA langileen Sindikatuko Idazkari Nagusiordea.



13:00 - 13:45

GURE JANTZIEN GIBELEAN: TOKIKO EKOIZPEN BAT POSIBLE OTE?

Maialen Zamponi, Orratzetik Hari kolektiboko jostuna; **Jon Curutchet**, Skunfunken hornitzea eta garapen iraunkorren arduraduna; **Tailerraren animazioa**: **Iban Lizarralde**.



14:00 - 15:00

BIRTOKIRATZEA, IPARRALDEA LABORATEGI

Gertagaitz eta motelegia litzatekeen Estatuaren eboluzioa igurikatu gabe, Euskal Herriko biztanleek erakitzen dituzte, duela aspaldi jada, alternatiba edo inizatiba batzuk, beren beharrentzat hemen eta orain aterabide batzuk plantan ezartzen dituztenak. Azken urte hauetan, hainbat inizatiba indartsu agertu dira birtokiratzearen arloan bai eta trantsizio sozial eta ekologikoaren arloan ere (Tokiko Moneta, Laborantza herriko eta iraunkorra, Energia beriztagarriak, etab.). Ipar Euskal Herria, birtokiratzearen laborategi? Mahai inguruaren animatzailea: **Ixabel Cassan**, Otsokopen lehendakaria.

Xebax Christy, Euskoa, Europako lehen tokiko moneta kudeatzen duen Euskal Moneta elkartearen Lehendakaria; **Maryse Cachena**, laboraria, Euskal Herriko Laborantza Ganbara; **Bixente Uhalde**, I-ENERen proiektu garatzailea



11:45 - 13:00

EUSKAL HERRIA AMANKOMUNEAN: KOMUNALAK TRANTSIZIO EKOLOGIKOAN

Komunalek merkatuarekiko alternatiba sinesgarri bat osatzen ote dute? Zein dira komunalen eta politika publikoen artean posible liratekeen harremanak aldaketa ekologiko eta sozialeetara egokitzeko testuinguru batean.

Xabi Larralde, ekonomialaria; **Beñat Etchebest**, Etxalde elkartearen lehendakaria; 2007an sortu Lur amankomun ontasuna; **Itziar Madina**, Euskal Ikastetean Doktorea, « Estatu gabeko komunitateak Euskal Mendian », **Bea Martxueta Pérez**, abokatu, LAB langileen Sindikatuko Politika Sozialeko Idazkaria.



15:30-17:00

EUSKAL HERRI BURUJABE, JASANGARRI ETA SOLIDARIOA ERAIKITZEKO ALTERNATIBAK

Kapitalak kontzentratzen ditu erabakiguneak jendarteak hitzik emaitako paradarik ez duen guneetan. Ondorioz, behartuak gara borrokak eta alternatibak indartzera tokiko mailan. Gaur egungo testuinguruak gomitatzen gaitu, eta bereziki Euskal Herrian, alternatiba erradikal eta pragmatikoen potentzial estrategikoaren ikertzerat. Lurraldeen burujabetza pasatzen da neurri ttipi eta ertainetako komunitateen indartzetik, egitura ttipi eta auto-kudeatuen sortzetik, hauen auto-askitasunaren (energia, elikadura, etab. alorretan) hobekuntzatik. Euskal Herriarentzat bezala, Trantsizio Ekologiko eta Sozialak bide-orri bat eskaintzen du lurralde guzientzat.

Xabi Anza, ELA langileen Sindikatuko Formakuntza arduraduna; **Amaia Oleaga**, Talaios kooperatibako, Olatukoopeko eta Koop57ko Batzorde teknikoko kidea, Proiektu ekonomiko eraldatzaileen formakuntzan, aholkularitzan eta bideragarritasun azterketetan aktibo; **Txomin Poveda**, Euskal Herrian herritar alternatibei buruz soziologian doktoradutza lan bat eramaiten ari dena.



ANIMAZIOAK

EUSKAL HIZKUNTZA ETA KULTURAREKIN TOPATZEKO HAINBAT PARADA

9:00 Xaho kaian, tokiko, etxaldeko, arlo biologikoko ekoizpenekin... Zuen asteko erosketak egin! **Herrixkaren irekitzea, Harrera**

10:00-17:00 Animazioak eta tailerrak herrixka osoan: etxe eredugarria, ezohiko bizikleten entseguak, bizikleta-eskola eta konponketa tailerrak, salda egite parte hartzailea, etab. **Eta musika talde ibilkariak:** Ibaialde kokoro, Or Konpon txistulariak, Gaurko Txistuak

10:00-17:00 Haurren xokoa (jokoak, animazio pedagogikoak)

11:00 Ibaialde Trainerua Errobin

11:00-11:30 Bertso hamaiketako eta arroltze ta xingar **Amets Arzallus eta Miren Artetxe**-rekin • *Roland Barthes zelaigunean*



11:30-12:30 Mutxikoak Patxi ta Konpaniarekin • *Laborarien merkatuan*

12:00-14:00 Tokiko eta lehen bezala eginiko garagardoaren topaketa • *Patxa Plazan*

12:00-12:30 Haiz Egoa, Euskal kantuak • *Patxa Plazan*

12:00-13:15 "Nork du hiria egiten?": Baiona ttipiaren bisita gidatua **Claude Labat**-ekin • *Laborarien merkatua (abiatzea eszenatokitik)*

12:00-15:30 Hainbat bazkari (herrikoi, bio, begetariano, nazioarteko, etab.)

12:15-13:00 Gura Show, Familia giroko kantuak « doi bat aldatuak », euskaraz • « *Berrerabiltzea, konponketa, birziklatzea* » eremuan

12:30-13:00 Alternatiba kantuz Kuxk txarangarekin, Euskal kantu herrikoien hitzordua • *Laborarien merkatuan*

12:30-13:00 Bertso saioa Miren Aretxe eta Amets Arzaillus • *Patxa Plazan*

12:45-13:15 Mari Koska • "Garraioak eta mugikortasun jasangarriak" eremuan

13:00-13:15 Artotekanté, munduko kantuak, hemengoak eta beste nobaitekoak • *Roland Barthes zelaigunean*

13:15-13:45 Alternatiba kantuz Kuxk txarangarekin, Euskal kantu herrikoien hitzordua • *Roland Barthes zelaigunean*

14:00-14:30 Alternatiba kantuz Kuxk txarangarekin, Euskal kantu herrikoien hitzordua • *Roland Barthes zelaigunean*

14:30 Dantza Piko Hilean Bariku Bat-ekin • *Roland Barthes agertokian*

15:00-15:45 Patxaranga, karaoke Rock'n'roll txaranga • "Garraioak eta mugikortasun jasangarriak" eremuan

15:00-15:45 Ibaialde Kokoro • *Patxa Plazan*

16:00-16:30 Buhaminak, boz-kontzertua • "Garraioak eta mugikortasun jasangarriak" eremuan

17:30 Paul Bert Plazan:


"ESPERANTZAREN ETA EKINTZAREN GARAIA"

Hitz-hartzeak **Geneviève Azam, Michel Berhocoirigoin, Mariama Diallo, Cédric Herrou**, etab.-ekin. **Jasminekin** dantza, **Mali Karmarekin** Hip Hopa eta **Aire Ahizpekin** kantuak.

19:00 Paul Bert Plazan: Kontzertuak urririk

DANAKIL

ZEZENAREN TALDEA • ZEZE



24:00 After-a Magnéton (Mousserolles-en) **Dj Clam y Dia**-rekin

LEKUKOTASUNAK

11:30-12:30 • Bizirik! Biziren Euskal Irratietako emankizun berezia, Alternatiba-tik zuzenean • *Paul Bert Plaza*

Fakultateko 135. ikasgelan lehen estaian

13:30-15:00 EUSKAL HERRIKO UDALETXEAK TRANTSIZIO EKOLOGIKOAN

13:30-13:45 Lucien Betbeder, Lekorneko auzapea, tokiko eta kalitatezko elikadura

13:45-14:00 Patxi Gaztelumendi, Larrabetzuko herritar eta burasoa, eskola jatetxetik udaletxe trantsiziora


14:00-14:15 Jean-Pelle Iriart, Aozeko auzapeza, berogailu sistema eta sarea, egurraren bidez

14:15-14:30 Iratxe Arriola, Eako auzapeza, trantsizio ekologikoaren perspektibarekin urbanismo, etxebizitza, ura eta garapen ekonomikoa

14:30-14:45 Oihan Mendo Goñi, Gareseko auzapeza, udal trantsizio energetikoa finantza etikaren bidez

14:45-15:00 Luis Intxauspe, Hernaniko auzapez eta Udalbiltzako lehendakaria, Udaletxeko trantsizio ekologikotik lurralde mailara





Alternatiba Herrixkako moneta ofiziala euskoa izanen da (merkatu, ostatu, ogitarteko, liburuak,...). Bakoitzak osoki euskotan aritzeko parada ukanen du (nahiz eta euroak ere onartuak izan). Euskoa gaur egun Europako tokiko lehen moneta da (zirkulazioan diren eusko kopurua kontuan hartuz)! Alternatiban, euskoaren presentatzeko tailer, animazio eta mahai-inguru ezberdinak programatua dira.

EUSKOArekin, euskara zaindu eta hedatu

Euskara eusko proiektuaren atal nagusi bat da sortu zenetik. Ingurumena eta tokiko enpleguaren aldeko ekonomiaren birtokiratzearekin batera, euskara zaintzea eta hedatzea euskoaren oinarritzko baloretarik bat da. Engaiamendu hori gauzatzeko, eusko sarean sartzen diren profesionalek bi desafio bete behar dituzte bi urteko epean, eta, horietariko bat euskarari lotua zaio (bigarrena, ekonomiaren birtokiratzeari). Euskararen erabilpen publikoa du bereziki defendatzen Euskoak profesionalei, gutxienik ondoko neurrietariko bat hartzea eskatuz:

- Bere saltegi seinaletikan edota komunikazio tresnetan afixatze elebiduna ezartzea.
- Bezeroei harrera euskaraz egitea edo, euskaldunak ez direnentzat, profesionalei zuzenduriko 20 orduko euskara klaseak hartzea (formakuntza profesionalaren bidez diruzta daitekeena).

EUSKOA alternatiben eta birtokiratzearen besta handiaren bihotzean

- Euskoa birtokiratze gunearen bihotzean izanen da Patxa plazan, informazio eta sentsibilizazio mahaiekin
- Eta Euskoa pestaren bihotzean izanen da ere, Paul Bert plazan, bi etxolekin dirua trukatzeko, kidezteko eta kontu bat irekitzeko.



ALTERNATIBA HERRIXKAREN BIHOTZEAN, HAURREN ETA INGURUMENARI BURUZKO HEZIKETAREN XOKOA

Adi, adi! Adin guzietako haurrak, etor gurekin, Xaho kaiaren puntan den Poudrière gunera, uraren, ingurumenaren, erleen, elikadura iraunkorraren, musika tresnen edo masken eraikitzearen arloan... zernahi deskubritzeko, joko egiteko edo ikasteko... Bertan ipuinak, ikusgarriak, eta beste ainitz sorpresa izanen dira! Ixo! Ez dezagun deus sala...



Eta horrez gain, tailer irri-egingarri eta pedagogikoak, tailer artistikoak, zirku tailerrak, pista jokoak, euskal herri-jokoak, etab.

Alternatibak



LABORANTZA, URA,
ELIKADURA



NEURRITASUNA



BERRERABILITZEA, KONPONKETA,
BIRZIKLATZEA



Urririkakotasunaren
gunea



LURRALDEKO ALTERNATIBAK



EKOFEMINISMOA



ENERGIA BERRITZAGARRIAK



AMANKOMUNAK, ELKARTASUNA
ETA PARTEKATZEA




BIRTOKIRATZEA



GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUN
JASANGARRIAK



Txirrinduluen
aparkalekua



Erronken bihotza



Gune nagusia



Mintzaldiak



Euskoen aldagunea

Harrera-informazio
gunea



Ezzenatokiak,
kontzertuak



Etxe eko-arduratsua

Sorospen tokia



Haurrendako xokoak



Talerrak eta
txirindula
erakustaldia

Komun idorra

Egunaren finantzatzen laguntzeko, Alternatiba edaritegiak + Ogitarteoak, fritak, taloak, arrotze eta xingarra, goizeko 9:00etarik goiti, egun osoan zehar.





BURUJABE

Reprendre possession de nos vies

Burujabe : un projet de territoire concret

Un apport au débat général : en Pays Basque bien sûr mais également pour tous les territoires voulant engager une métamorphose sociale et écologique.

En vente à 3 euskos sur tout le Village Alternatiba !

Gure bizi baldintzak berreskuratuz

Burujabe: lurralde zehatz bateko proiektua

Eztabaida orokorrerako ekarpena: Euskal Herrirako, noski, baina ber maneran, eraldaketa sozial eta ekologikoa abiatu nahi duten lurralde guzietarako.

3 euskotan salgai da Alternatiba Herrixka osoan!

Bizi !

20 rue des Cordeliers • 64100 Bayonne // Cordeliers karrika, 20 • 64100 Baiona
05 59 25 65 52 • info@bizimugi.eu • www.bizimugi.eu
Twitter @bizimugi • Facebook bizimugimendua